

EUSKARAREN EGUNEKO KOPLAK

<p>Erran dut, erranen eta errango, ez naiz isilik egongo, plaza hontako dama gazteak ez dira moja sartuko.</p> <p>Ala kinkiri, ala kunkuru, ala kinkiri kunkuru kanta, ala kinkiri kunkuru kanta gu bezalakoak dira hola!</p>	
<p>1- Zer nolako Euskararen eguna egin behar dugu orain bertan, disfrutatzeko eguna iritsi da bai hementxe Lauaizetan.</p> <p>Ala kinkiri, ala kunkuru.....</p>	<p>2. Irakasleak serio jarrita beti ari dira oihukatzen, euskaraz egin behar dugula dabiltza beti eskatzen.</p> <p>Ala kinkiri, ala kunkuru.....</p>
<p>3. Bertan ikasle guztiak pozik etorriak kantatzera Euskararen eguna ospatzeko Lauaizetan bildu gara.</p> <p>Ala kinkiri, ala kunkuru.....</p>	<p>4. Euskara gora euskara behera zergatik eguna ospatu, hobe genuke dudarik gabe beharririk guk ez bagenu.</p> <p>Ala kinkiri, ala kunkuru.....</p>
<p>5. Gaur Euskararen eguna da eta festa bat dugu egingo Lauaizetako neska-mutilak ondo dugu pasatuko.</p> <p>Ala kinkiri, ala kunkuru.....</p>	<p>6. Abenduak hiru bada eta egun hau genuen espero guk euskaraz hitz egiten dugu Lauaizetan egunero.</p> <p>Ala kinkiri, ala kunkuru.....</p>
<p>7. Musikari horiekin batera euskaraz kanta dezagun. Gaurko eguna polita dugu gure euskara da txapeldun.</p> <p>Ala kinkiri, ala kunkuru.....</p>	<p>8. Lauaizetako ikasle askok ez dugu euskaraz egiten honen zergatiaren inguruan hasi behar gara pentsatzen.</p>
<p>9. Gu gara ilusioz beteta hauxe baita gure meta euskaraz bizi eta sentitu Euskal Herrian gaude eta.</p> <p>Ala kinkiri, ala kunkuru.....</p>	<p>10. Lauaizetako lagunak gara oso bihotz onekoak gure hizkuntza asko maitatzen dugu garelako euskaldunak.</p> <p>Ala kinkiri, ala kunkuru.....</p>
<p>11. Gaur Euskararen eguna da ta ospatu beharra dago Lauaizetako neska-mutilak festa egin dutelako.</p> <p>Ala kinkiri, ala kunkuru.....</p>	<p>12. Euskara Eguna ospatuzeko bildu gara Lauaizetan ikasle irakasle eta lagunak goza dezagun bai dantzan.</p>